



Laudioko EAJko Udal Taldea

LAUDIOKO EAJ-PNV TALDE POLITIKOAREN ORDEZKO BOZERAMAILE MAIDER BASTERRA IBARRETXEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, GOBERNU TALDEARI LAN ESKAINTZA PUBLIKO BAT DEI DEZALA ESKATZEKO, ETA GAIA OSOKO BILKURAN EZTABAIDATZEKO

JUSTIFIKAZIOA:

Laudio Udaleko langileriak gaur egun bizi duen ezegonkortasun egoerak arlo eta maila guztietan du eragin nabarmena: langile teknikoak, arloburuak, langile administratiboak, udaltzainak, brigadetako langileak, behargin laguntzaileak, garbitze-lanetako langileak eta abar.

Horren arrazoiak askotarikoak dira: adinaren nahiz ezintasunen ondoriozko erretiroak, aldi baterako ezintasun egoerak (gaixotasunak, oporraldiak eta abar).

Laudioko EAJ-PNV alderdiaren ustez, kezkatzeko moduko datuak dira, bitarteko langile asko baitaude plantillan, belaunaldi aldaketen ondoriozko bajak aldi baterako kontratuekin ordeztzen direlako eta horrek, lan-egonkortasuna eragiten duenez, bitarteko funtzionario dabilzan langile askok lanpostu egonkorragoak bilatzen dituztelako beste administrazio edo enpresetan.

Beste datu objektibo bat da bete gabeko plaza hutsak daudela, eta hori ere salatu egin da.

2017ko otsaileko ohiko Osoko Bilkuran Laudio Udaleko Langileen Lan Baldintzak arautzeko hitzarmena onetsi zen, 2015, 2016, 2017, 2018 y 2019. urteetan indarrean egongo dena.

Hitzarmen horretan, egonkortasunaren eta kalitatezko enplegu publikoa sortzearen inguruko konpromisoak jasotzeko klausulak daude.

Azaldutakoa oinarri gisa hartuta,



Laudioko EAJko Udal Taldea

Udalbatzaren Osoko Bilkurak erabaki du:

LEHENENGOA.- EH Bilduren gobernu taldeari eskatzea premiaz eraman dezala Funtzio Publiko eta Lan harreman Arloko Informazio Batzordera gaur egungo RPZ BERRANTOLATZEKO proposamena.

BIGARRENA.- Langileria Batzordeko kideak gonbidatzea batzorde horretara, adostasunak bilatzen eta erabakiak hartzen lagun dezaten.

HIRUGARRENA.- Prozesua amaitzeko, lan-eskaintza publikoa egitea 2017. urtea bukatu baino lehenago.

Laudion, 2017ko ekainaren 12an

Sinatuta: Mainer Basterra Ibarretxe

Laudioko EAJ-PNV taldearen ordezkoko bozeramailea